

Interes orokorreko xedapenak, 2017ko uztailaren 17tik 22ra bitarteko aldizkarietan argitaratutakoak (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBAO).

I.- SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2017/07/18koa

- Ebazpena, 2017ko uztailaren 7koa, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, portuko zamaketaren sektorearen IV. akordia aldatzeko akta erregistratzen eta argitaratzen duena. [8414. xedapena - 4. or.](#)
- Ebazpena, 2017ko uztailaren 7koa, Enpleguko Zuzendaritza Nagusiarena, turroien eta mazapanen industrietarako hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. [8415. xedapena - 29. or.](#)

II.-XEDAPEN ARAUEMAILEAK:

BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2017/07/18

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOETAKO MINISTERIOA. – Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2017ko uztailaren 14koa, Administrazio Digitaleko Idazkari Nagusiarena, interesdunek Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde publikoen administrazio-organoekiko harremanetan kriptografikoa ez den sinadura elektronikoa erabiltzeko baldintzak ezartzen dituena. [8393. xedapena - 6. or.](#)

2017/07/19

- **DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA.** - Ebazpena, 2017ko uztailaren 6koa, Idazkariordetzarena, Pertsonal Kostuen eta Pentsio Publikoen Zuzendaritza Nagusiari igorritako dokumentazioa ezabatzea baimentzen duena, pentsioak aitortzeko prozeduretan sartzeko eta kopia elektronikoko bidez ordezkatzeko. [8448. xedapena - 3. or.](#)

2017/07/21

- **GORTE NAGUSIAK. - Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2017ko uztailaren 11koa, finantza-arloko premia neurri buruzko ekainaren 23ko 11/2017 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena. [8520. xedapena - 1. or.](#)
- **GORTE NAGUSIAK. - Jabetza intelektual.** - Ebazpena, 2017ko uztailaren 11koa, uztailaren 3ko 12/2017 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko erabakia argitaratzea agintzen duena; Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia, aldatzen du horrek, kopia pribatuarengatik bidezko konpentsazio-sistemari dagokionez. [8521. xedapena - 1. or.](#)
- **HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. - Administrazio-prozedurak.** – ECD/680/2017 Agindua, uztailaren 14koa, Iberex eta Hispanex programen barruko laguntzak deitzeko prozeduretan bitarteko elektronikozko komunikazioak eta jakinarazpenak nahitaez egitea ezartzen duena. [8523. xedapena - 3. or.](#)
- **ESPAINIAKO BANKUA. - Diru-politika.** - Ebazpena, 2017ko uztailaren 18koa, Espainiako Bankuko Batzorde Exekutiboarena, Espainiako Bankuaren diru-politikako eragiketei aplikatu beharreko klausula orokorrak onartzen dituen 1998ko abenduaren 11ko Ebazpena aldatzen duena. [8615. xedapena - 14. or.](#)

2017/07/22

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOETAKO MINISTERIOA.** - Estatuko sektore publikoa. **Ordainsariak.** - Ebazpena, 2017ko uztailaren 20koa, Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkariarena eta Funtzio Publikoaren Estatu Idazkariarena, Estatuko Sektore Publikoko langileei 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 3/2017 Legean aurreikusitako ehuneko 1aren igoerari dagozkion atzerapenak ordaintzeko instrukzioak ematen dituena. [8616. xedapena](#) - 3. or.
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA.** - **Gizarte Segurantza. Aurrekontuak.** - ESS/685/2017 Agindua, uztailaren 20koa, Gizarte Segurantzaren aurrekontuak osatzeko arauak agintzen dituen urtarrilaren 28ko ESS/150/2013 Agindua aldatzen duena. [8619. xedapena](#) - 3. or.
- **OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA.** - **Diru-laguntzak.** - 729/2017 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren tributu-esleipenaren kontura interes orokorreko jarduerak egiteko diru-laguntzak, Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunerako Estatu Idazkaritzari dagozkionak, emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena. [8621. xedapena](#) - 23. or.

EHAA (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2017/07/17

- **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA.** - **EBAZPENA**, 2017ko uztailaren 4koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Merkataritzako bulego teknikoetarako laguntzak emateko deialdia 2017ko ekitaldirako. [3588. xedapena](#)
- **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.** - **AGINDUA**, 2017ko ekainaren 27koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2017an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak (LANHITZ) emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena. [3589. xedapena](#)

2017/07/19

- **LEHENDAKARITZA.** - **EBAZPENA**, 2017ko uztailaren 12koa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariarena, Memoria Demokratikoa berreskuratzeko ikus-entzunezko ekoizpenak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena, 2017. urterako. [3653. xedapena](#)

2017/07/20

- **SEGURTASUN SAILA.** - 187/2017 DEKRETUA, uztailaren 4koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duena. [3679. xedapena](#)
- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 2/2017 FORU ARAUA, ekainaren 30ekoa, Itsaso udalerrri berria sortzearen ondorioz Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2017. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 8/2016 Foru Arauaren III. eranskina aldatzen duena. [3680. xedapena](#)

2017/07/21

- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.** - EBAZPENA, 2017ko uztailaren 10ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez zabaltzen baita erakunde eta enpresetarako deialdia «Hirigintzako XLII. (42) Ikastaroa» (Bilbao, 2016-2017) delakoaren esparruan praktiketako pertsonak har ditzaten. Ikastaro hori Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendeko Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatu du. [3705. xedapena](#)
- **HEZKUNTZA SAILA.** - AGINDUA, 2017ko ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, berrikuntza- eta ekintzailtza-proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egiten diena 2017-2018 ikasturtean Lanbide Heziketako IV. Euskal Planean zehaztutako estrategiari jarraitzen dioten Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxei. [3707. xedapena](#)

ALHAO (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2017/07/19

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK.** - 13/2017 Foru Araua, ekainaren 28koa, Pertsona Fisikoen gaineko Errentari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua aldatzekoa, Epe Luzerako Aurrezki Planen tratamendu fiskala jasotze aldera. [2745. xedapena - 4. or.](#)

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2017/07/19

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** - 3/2017 FORU ARAUA, uztailaren 12koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Udalek Bizkaiko Batzar Nagusietan araugintzarako ekimena aurkezteko prozedura arautzen duena. [4. or.](#)

2017/07/20

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Interesatuentzako agerdeiaren 2017/25 iragarkia. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1344/2017 FORU AGINDUA, 2017ko uztailaren 14koa, zeinaren bidez Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2017ko ekainaren 8ko 1087/2017 Foru Agindua aldatzen den. Azken agindu horren bidez, sozietateen gaineko zergaren (Bizkaiko lurralde historikoan ari diren atzerrian eraturako errentak eratzitzeko araubideko erakundeak) eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren (establezimendu iraunkorrak) autolikidazioa aurkezteko 200 eta 220 ereduak onetsi dira, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako, eta ereduok telematikoki aurkezteko prozedura arautu da. [1. or.](#)

2017/07/21

- **GIZARTE EKINTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 93/2017 FORU DEKRETUA, uztailaren 12koa. Honen bidez, 2017. urteko kreditu-mugari dagokionez aldatzen da 63/2001 Foru Dekretuko lehenengo xedapen iragankorra. Foru dekretu horrek honako hau arautzen du: adinekoak foru egoitza publikoetan edota egoitza itunduetan sartzeko sistema eta adinekoak besteren egoitzazko gizarte zerbitzuetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak nola eman. [2. or.](#)
- **GIZARTE EKINTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 94/2017 FORU DEKRETUA, uztailaren 12koa. Honen bidez, abenduaren 20ko 185/2016 Foru Dekretua aldatzen da. Foru dekretu horren bidez, mendetasuna duten adinekoentzako eguneko zentroko plazen gehieneko kostua aldatzen da; erabiltzaileak eguneko egin behar duen ekarpen ekonomikoa zehazten da, eta aurrekontuko diru-izendapena eta kreditu-erreserba ezartzen dira 2017, 2018 eta 2019rako. [2. or.](#)

GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialerako sarbidea

EBAO (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala)

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialerako sarbidea

Kepa Bilbao Zubiaur

Tel.: 94 425 25 15 Faxa: 94 423.22.95

Helbide elektronikoa: informacion.juridica@mutualia.es



**GIZARTE SEGURANTZAREKIN LANKIDETZA DUEN 2 ZENBAKIDUN MUTUA
HENAO 26 - 48009 BILBO**